


**IGELDOKO ITSASARGIA**  
C MAILA

**ITSASARGI PASEALEKUA 107**



Egilea eta data: Manuel Peironcely-ri egotzia; 1855

#### **Deskribapena**

Bi altuerako eta oinplano laukizuzeneko eraikin bakartua. Bertan, zati batean, itsasargiaren bolumen zilindrikoa sartzen da. Harlangaitz horma entokatuko fatxada. Erlaitzetako eta kantoiko pilastretako marrazkiak ere harrian eginak. Hala ere, itsasargiaren goialdean beranduago egindako lanak ikus daitezke, linternaren azpiko balkoi zirkularrean gutxienez.

#### **Babes erregimena.**

- 1.- Babesteko erregimen orokorra.  
Plan Berezi honen C babes mailan sartzearekin loturikoa.
- 2.- Berariazko babes erregimena:
  - A.- Babesetik kanpo utzitako fatxadako elementuak edo zatiak: leihoetako arotzeriak.
  - B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: itsasargiaren bolumena eta eraikinaren gaur egungo profila.
  - C.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak: jasodurak ez dira onartzen.
  - D.- Nahitaezko lehengoratzak: ez.